# Erregistratutako langabezia %1,1 murriztu zen martxoan

Euskadik langabeziaren murrizketaren bideari eutsi zion martxoan, 107.173 langabetu erregistratu baitziren Lanbideren bulegoetan, 2008tik hilabete honetan izandako kopururik txikiena. Urte arteko datuei erreparatuz gero, langabeziak %1,1 egin du behera, urtearen hasieran izandako aldeko joera berretsiz. Izan ere, lehen hiruhilekoko balantzeak %1,2ko batez besteko jaitsiera erakusten du 2025eko lehen hiruhilekoaren aldean. Enplegua hobetzeko testuinguru horretan kontratazioak ere lagundu zuen. Martxoan 60.481 kontratu erregistratu ziren, 2025eko hilabete berean baino %5,2 gehiago. Oro har, datuek baieztatzen dute Euskadiko lan merkatuak hazkunde dinamika moderatua eta sendoa mantentzen duela.

## LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa




LANGABEZIA ERREGISTRATUA. MARTXOA

%1,1

## LANGABEZIA ERREGIST. EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




## LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



## LANGABEZIA. GAZTEAK
Urte arteko aldakuntza tasa




## LANGABEZIA. ATZERRITARRAK
Urte arteko aldakuntza tasa




Urte arteko tasan langabeziak, batez ere, gizonen artean egin zuen behera (%2,4), emakumeen artean, berriz, ia ez zen aldatu. Nabarmentzekoa da 25 urtetik beherakoen artean izandako beherakada (%3,7); adin horretatik gorakoen artean, ordea, %0,8 baino ez zen jaitsi langabezia. Sektoreka, langabeziak behera egin zuen, oro har, eta aipatzekoa da eraikuntzan izandako jaitsiera, industriaren aldean, azken hau urte arteko hazkundea izan zuen sektore bakarra izan baitzen (%1,1). Biztanleria atzerritarraren artean, langabeziak pixka bat egin zuen behera (% 0,2), eta 2025eko irailaz geroztik ikusten zen goranzko joera etenez.

### LANGABEAK

| | 2025eko martxoa | 2026ko martxoa | Aldakuntza |
|---|---|---|---|
| **LANGABEAK GUZTIRA** | **108.314** | **107.173** | **-1.141** |
| LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA | | | |
| Araba | 18.751 | 18.333 | -418 |
| Bizkaia | 61.073 | 60.426 | -647 |
| Gipuzkoa | 28.490 | 28.414 | -76 |
| SEXU ETA ADINAREN ARABERA | | | |
| Gizonak | 45.793 | 44.672 | -1.121 |
| Emakumeak | 62.521 | 62.501 | -20 |
| 25 urtetik beherakoak | 10.138 | 9.761 | -377 |
| 25 urte baino gehiago dutenak | 98.176 | 97.412 | -764 |
| EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA | | | |
| Lehen arloa | 1.938 | 1.837 | -101 |
| Industria | 10.155 | 10.268 | 113 |
| Eraikuntza | 5.715 | 5.287 | -428 |
| Zerbitzuak | 75.934 | 75.282 | -652 |
| Lehenago lan egin dutenak | 93.742 | 92.674 | -1.068 |
| Lehenago lan egin ez dutenak | 14.572 | 14.499 | -73 |
| ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK | | | |
| Langabe atzerritarrak | 21.058 | 21.023 | -35 |

Iturria: SEPE.